


# GAU-ILLA



Alostorreako kondaira  
La leyenda de Alostorrea



DEBAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE DEBA

Alex Turrillas - J. Ignacio Treku

© Argitalpena/Edición: Debako Udala/Ayuntamiento de Deba

© Testuak/Textos: Alex Turrillas

© Marrazkiak/Ilustraciones: J. Ignacio Treku

Diseinu eta maketazioa/Diseño y maquetación: Kaioa a.s.p.

Euskarazko itzulpena/Traducción al euskara: Logikaline

Inprimaketa/Impresión: Graphidaps

I.S.B.N.: 978-84-606-4817-8

L.G./D.L.: BI-892-09

**G**au-illa kondaira –Alostorreako kondaira ere esaten zaio– Euskal Herriko kondaira herrikoienetako bat da.

Ez dakigu kondairako bertsoak nork egin zituen (akaso emakumezko batek) eta noiz idatzi edo transkribatu ziren lehenengo aldiz.

XV. mendekotzat hartu izan badira ere, ez litzateke harritzekoa izango XIV. mendekoak izatea, ezta Debako Monreal ofizialki fundatu (1343) baino lehenagokoak izatea ere, litekeena baita herritarrek bertso originalak buruz jaso eta ahoz transmititu izatea.

Gau Illa-n agertzen diren Erdi Aroko bertsoak eresiak dira, pertsona maitatu bat hiltzen zenean emakumeek botatzen zituzten aieneak irudikatzen dituen generoa alegia. Gau Illa-koak Usua-k itxuraz hilda zegoen Beltran Perez de Alos bere aita jaunaren gorpuaren aurrean botatako aieneak dira.

Argitalpen honen amaieran agertzen diren bertsoak Juan Venancio Araquistain-en “Tradiciones Vasco-Cántabras” obratik kopiatu dira. Lan hura 1866an argitaratu zen.

**L**a leyenda “Gau-illa”, también conocida como “Leyenda de Alostorrea”, es una de las más populares de Euskal Herria.

Se desconoce quién fue el autor, o más probablemente autora, de los versos en los que está basada, y en qué fecha concreta fueron escritos o transcritos por primera vez.

Aunque catalogados como del siglo XV, no sería extraño que los versos originales, recogidos por la memoria popular y transmitidos oralmente, datasen del siglo XIV, años antes incluso de la fundación oficial de Monreal de Deba, hecho acaecido en 1343.

Los versos medievales de Gau Illa se encuadran dentro de las elegías, en euskera “eresiak”, género que plasma los lamentos, siempre de una mujer, ante la muerte de un ser querido. En este caso, son los lamentos de Usua ante el cuerpo aparentemente muerto de su padre, Don Beltrán Pérez de Alós.

Los versos reproducidos al final de esta publicación corresponden a los recogidos por Juan Venancio Araquistain en su obra “Tradiciones Vasco-Cántabras”, editada en 1866.





Beltran Perez de Alos izena zuen eta Deba ibaiaren ertzean zegoen dorre ahaltzu bateko jauna zen. Haren ileek elur kolorea hartzen hasi zirenean, Beltran jaunak familia noble bateko alaba dotore eta bihozbera gazte batekin esposatzea erabaki zuen.

Ezkontzatik urtebete igaro zenean, neska polit batez erdi zen andrea, Usua jaio zen.


Haurtxo haren jaiotzak hainbesteraingo poza eman zion Beltran jaunari, non agindu zuen mila oilasko hiltzeko eta Arriola eta Lastur mendietan larrean zebiltzan zazpi zezen txuliatzeko.



Se llamaba Beltrán Pérez de Alós y era señor de una poderosa torre situada a orillas de la ría del Deba. Cuando sus cabellos mostraban ya el color de la nieve, Don Beltrán decidió tomar como esposa a una bella y bondadosa joven hija de una noble familia.

Había transcurrido un año desde el enlace, cuando la señora dio a luz una preciosa niña, Usua.

El nacimiento de aquella criatura produjo tanta alegría a Don Beltrán, que para celebrar el feliz acontecimiento ordenó que se mataran mil gallinas y se corrieran siete toros de los que pastaban en los montes de Arriola y Lastur.





Gutxi iraun zuen poztasunak etxean. Usua jaio eta bi egunetara ama gaztea zendu egin zen, eta desgrazia hark jota utzi zuen Beltran jaun ahaltsua.

Baina askotan gertatzen den legez, denboraren poderioz Alos-eko jaunaren malko mingotsak lehortu egin ziren.

Emaztea hil eta bi urtera, Beltran jauna emakume harro eta gaizto batekin ezkondu zen. Andre berriak bi alaba izan zituen, zoritxarrez amaren gaiztakeria heredatu zuten bi alaba hain zuzen ere. Bi alaba haiek, txiki-txikitatik eta amak hala hezita, bizitza izorratu zioten Usua gajoari. Usuak maiz jasan behar izan zuen isilean bere burua esklabo baten antzera ikustea.



Poco duró la alegría en la casa, pues a los dos días de nacer Usua murió la joven madre, y aquella desgracia sumió en el abatimiento al poderoso Don Beltrán.

Pero como a menudo sucede, el inexorable paso del tiempo fue secando las amargas lágrimas del señor de Alós.

A los dos años de la muerte de su esposa, Don Beltrán contrajo matrimonio con una arrogante y malvada mujer. La nueva señora tuvo dos hijas que, por desgracia, heredaron la maldad de su madre. Desde muy niñas, aleccionadas por ella, fueron amargando la vida de la pobre Usua, quien a menudo tuvo que soportar en silencio el ser tratada como una esclava.



Urteak igaro ziren eta, egun batean, Alos jauna Gaztelako lurretara joan zen, bere soldaduekin, mairuen aurka borrokatzera.

Kanpoan zen bitartean, jendeak esaten zuen zerbait arraroa ari zela gertatzen dorrearen hormen barruan, jendea haserrarazi eta Usua maitagarriaren osasuna egunetik egunera ahitzen zihoan zerbait beldurgarria.

Beltran jauna Gaztelako lurretan garaipenak eta porrotak metatzen ari zen bitartean, norbait haren izen handia desondratzen ari zen. Eskandalua ahoz aho zebilen.

Bi urteren buruan, Beltran jauna etxera itzuli eta bere alaba kuttuna hiltzorian eta tristeziarik handiengan sartuta aurkitu zuen.





Pasaron los años, y un día, el señor de Alós acompañado por sus gentes marchó a tierras de Castilla para luchar contra los moros.

Durante su ausencia, las gentes comentaban que algo extraño estaba sucediendo dentro de los muros de la torre, algo terrible que les indignaba y que día a día iba consumiendo la salud de la dulce Usua.

Mientras Don Beltrán acumulaba victorias y derrotas en el campo de batalla, alguien estaba deshonorando su buen nombre. El escándalo corría de boca en boca.

Al cabo de dos años, Don Beltrán regresó a casa encontrando a su querida hija moribunda y sumida en la más profunda tristeza.

Ordurako zahartua zegoen jaunak samurtasunez besarkatu zuen eta lur jota zergatik zegoen galdetu zion. Eta negar zotinka, neska gazteak ez zekiela erantzun zion, nahi zuen gauza bakarra etxe hura utzi eta berarekin alde egitea zela, ahal zuten urrutiena joan eta lasai bizitzeko.

Beltran jaunak, egoera triste hura nola konpon zezakeen pentsatzen egon ondoren, erabaki zuen konponbidea Usua ezkontzea zela. Zorte pixka batekin, ezkontuta bere alaba kuttunenaren zorigaitzak amaitu egingo ziren.

Neskatila dotoreari inoiz ez zitzaion ezkongairik falta izan. Haietako bat Bidaniko familia garrantzitsu eta aberats bateko maiorazkoa zen; baina, hura ez zen Beltran jaunaren eta Usuaren gogoko.



Abrazándola tiernamente, el ya anciano señor le preguntó cuál era el motivo de su abatimiento. Y entre sollozos la joven respondió que no lo sabía, que su único deseo era abandonar aquella casa y huir junto a él a un lugar lo más lejos posible, donde pudiesen vivir tranquilos.

Tras meditar sobre un posible arreglo de aquella triste situación, Don Beltrán decidió que el remedio pasaba por casar a Usua. Con un poco de suerte, el matrimonio acabaría con los males de su hija más querida.

A la bella muchacha nunca le habían faltado pretendientes. Uno de ellos era el mayorazgo de una importante y rica familia de Bidania, que ni era del agrado de Don Beltrán ni de Usua.





Amaordea neska gaztea begi-bistatik kendu nahian zebilen eta bere senarra ezkontza ospatzeko konbentzitu zuen. Eta Usuak, aitaren esana beti bezala eginez, artean maitatzen ez zuen gizon batekin ezkontzea onartu zuen. Kotsolamendu bakar batek lasaitzen zuen: ezkontuta gauzak oso-oso gaizki joanda ere, ez zuen ordura arte bizi behar izan zuen adinako oinazerik izango.

Ezkontza ospatu zen eta bikote gaztea Bidania aldera abiatu zen.

Alos-en etxean lasaitasuna nagusitzen hasi zela ematen zuen; baina, ez zen gauza bera gertatzen etxearen jabearen buruan: atsekabetuta zegoen, bere alabaren erreguak etortzen zitzaizkion burura, etxea utzi eta beste leku batean bizitza berri bat hasteko.



La madrastra, interesada en deshacerse de la joven, convenció a su esposo para que se celebrase la boda. Y Usua, obedeciendo como siempre a su padre, accedió a casarse con un hombre al que de momento no amaba. Tan sólo le aliviaba el consuelo de que por mal que fuese su matrimonio, jamás supondría un tormento tan grande como el que venía padeciendo.

Se celebró la boda, y la joven pareja partió hacia Bidania.

Aunque una aparente calma comenzó a reinar en la casa de Alós, no sucedía lo mismo en la mente de su dueño, quien atormentado recordaba las súplicas de su hija para abandonar la casa y rehacer sus vidas en otro lugar.

Beltran jaunaren dudak susmo bihurtzen joan ziren eta, esplikazioren bat aurkitzeko irrikatzen zegoenez, gazte zurtz batekin hitz egitea erabaki zuen. Gazteari “bele beltza” esaten zioten eta urteak zeramatzan Beltran jaunaren etxean bizitzen, hark bere etxean hartu zuenetik; seme bat bezala tratatzen zuen.

Baina, ezin izan zion ezer atera; gazteak sutsu defendatzen zuen une oro andre gaiztoa, eta jarrera hark haserretu egin zuen Alos-eko jauna.

Gau batean, Beltran jauna lagun batekin, itsasontzi bateko kapitainarekin afaltzen ari zela, itsasgizonak ardoaren eraginez-edo azaldu zion hura kanpoan egon zen bitartean ume bat jaiotzeko zela Alos-eko dorrean. Beltran jaunak ez beste guztiek zekiten.



Las dudas de Don Beltrán se fueron convirtiendo en terribles sospechas, y ansioso por buscar una explicación, decidió hablar con un joven huérfano, conocido como “cuervo negro”, al que hacía años había acogido en su casa y tratado como a un hijo.

Pero nada pudo sonsacar al joven, quien en todo momento defendió fervorosamente a la malvada señora, lo que provocó la ira del señor de Alós.

Una noche que Don Beltrán cenaba con el capitán de una nave amigo suyo, el marino, movido por los efectos del vino, le desveló que durante su ausencia había nacido una criatura en la torre de Alós. Todos lo sabían menos él.



Suminez beteta, Beltran jaunak esplikazioak eskatu zizkion emazteari eta hark, gertatutakoa ukatu ezin zuenez, Usuari bota zion Zarautzera isilpean eraman omen zen ume baten ama izatearen errua.

Emakumearen abildade gaiztoa zela medio, senarrak Usuari errezelo txarrak hartzen hasi zen.

Zalantzen gatik haserre eta penatuta, Alos-eko jaunak eskandalu haren atzean zer zegoen behingoz jakitea erabaki zuen.



Cegado por la ira, Don Beltrán pidió explicaciones a su esposa y ésta, no pudiendo negar lo sucedido, culpó a Usua de ser la madre de un niño que al parecer había sido llevado en secreto a Zarautz.

La diabólica habilidad de la mujer hizo que las sospechas del marido hacia ella recayesen ahora sobre Usua.

Indignado y atormentado por las dudas, el señor de Alós se propuso averiguar, de una vez por todas, la verdad sobre aquel escándalo.







Hurrengo goizean, albistea tximista bezain azkar zabaldu zen: Alos-eko Beltran jauna bat-batean hil zen.

Ohitura zen bezala, “Gau-illa” ospatu zen; lagunek eta senideek zaindu zuten jaunaren gorpua. Bakoitza, zerraldoaren aurrean zegoela, jaun ahaltsuaren adorea, balentriak eta bertuteak goresten aritu zen.

“Gau-illa” amaitzear zegoela, Usua iritsi zen. Ordurako, aretoan emaztea, alabak eta gazte zurtza baino ez ziren geratzen.

Nahigabeagatik nekatuta eta malkoetan blai eginda, neska hilkutxara hurbildu eta bere aita besarkatu zuen; amaordeak eta gazte zurtzak, ordea, galarazi egin zioten.



A la mañana siguiente la noticia se extendió veloz como un rayo: Don Beltrán de Alós había fallecido repentinamente.

Como era costumbre, se celebró la “Gau-illa”, donde amigos y parientes velaron su cadáver. Cada uno de ellos, situado ante el féretro, fue ensalzando el valor, las hazañas y las virtudes del poderoso señor.

Estaba a punto de finalizar la “Gau-illa” cuando llegó Usua. Tan sólo permanecían ya en la sala la esposa, sus hijas y el joven huérfano.

Rota por el dolor y bañada en lágrimas, la joven se dirigió hacia el féretro para abrazar el cadáver de su padre, pero la madrastra y el huérfano se lo impidieron.



Hainbeste irain jasan ezinik, aurpegia harrotasunez altxatu eta, bere aitaren gorputzaren aurrean belaunikatuta, hil kantu garratz bat abestu zuen Usuak, oinazea eta amorrua nahastuz. Pixkanaka-pixkanaka, amaordea eta gazte zurtza gorrotoz begira zituela, neskaren bertsoek gertatutako guztia nola gertatu zen azaltzen hasi ziren.

*Aita-jauna neria Gastelan zanian,  
Ishil ascoric jayo zan Alós-torrian semia.  
Eta ala ere ishilagoric  
Dago baquian Acitzen Zarauz aldian...*

Lotsaizunaren egileak agerian utziko zituzten hitzak entzuten hasi zirenean, alargunak eta gazte zurtzak elkarri begiratu zioten eta zurtzak sastakai bat atera eta Usuaren gainera joan zen, neska hiltzeko asmoz. Bat-batean, ordea, Beltran jauna, guztiek hiltzat emanda zeukatena hilkutxatik zalapartan atera zen eta, han zeudenak ikusten ari zirenarekin harrituta zeudelarik, gazte gaiztoa bere ezpataz zeharkatu zuen, eta hil egin zuen.



No pudiendo soportar tanta humillación, Usua levantó con orgullo la frente y arrodillada ante el cuerpo de su padre entonó un amargo canto fúnebre en el que se mezclaban el dolor y la rabia. Poco a poco, ante las miradas de odio de la madrastra y el huérfano, sus versos fueron desvelando la verdad de todo lo acontecido.

*Cuando mi señor padre se hallaba en Castilla,  
Con harto silencio nació un hijo en la torre de Alós.  
Y por fortuna, con harto misterio  
Se encuentra aún vivo en Zarautz...*

Sonaban ya las palabras que iban a desenmascarar a los autores de la deshonra, cuando se cruzaron las miradas de la viuda y el huérfano, y éste sacando un puñal se abalanzó sobre Usua para matarla. De repente, Don Beltrán, al que todos creían muerto, salió estrepitosamente de su ataúd y ante las miradas atónitas de los presentes atravesó mortalmente con su espada al malvado joven.



Hurrengo egunean, Beltran jauna hots handiz ehortzi zuten. Lur-ematera joan zirenei deigarria gertatu zitzaien Bele Beltza ez joan izana; harrezkero inork ez zuen inoiz ikusi. Egun batzuen buruan, emazte gaiztoa eta haren bi alabak Nafarroako lekaimetxe batean sartu ziren.

Alos-eko dorrearen atek betirako itxi ziren eta Usua, bere senarrarekin, beste lurralde batzuetara joan zen bizitzera, Deba ibaiaren ertzetik oso-oso urrutira.

Zenbaitek dioenez, agure batekin alde egin zuten, bere aurpegia tapatzen zuen agure batekin hain zuzen, eta, guztien ustez, agure hura Beltran jauna zen. Handik denbora gutxira, andre gazteak eta haren senar maiteminduak bi haur zoragarri izan zituzten eta bi haur haiek agure misterioitsu eta beneragarri haren azken urteak zoriontasunez bete omen zituzten.



Al día siguiente se celebró con gran pompa el entierro de Don Beltrán. A todos los asistentes les llamó la atención la ausencia de Cuervo Negro, el huérfano al que desde entonces nadie volvió a ver jamás. Pocos días después, la malvada esposa y sus dos hijas ingresaban en un convento de Navarra.

La torre de Alós cerró sus puertas para siempre y Usua, junto a su marido, marchó a vivir a otras tierras, lejos, muy lejos de la ribera del Deba.

Cuentan algunos, que les acompañaba un anciano que ocultaba su rostro y en el que todos creían ver la figura de Don Beltrán de Alós. Al poco tiempo la joven y su enamorado esposo tuvieron dos preciosas criaturas que, según dicen, llenaron de felicidad los últimos años de aquel misterioso y venerable anciano.

Eche eder leyo bague onetan,  
ez naiz sartu zazpi urte aüvetan,  
eta zortzi garrenian  
neretzat zorigaitzian  
Aita Beltranen illtzian.

Amandria neria nizaz  
bi erdi eguin zanian,  
milla ollo ill eta  
ezcaratzian,  
zazpi cecen corritu ere  
emparantzian,  
ni ere banengüen  
lumacho artian,  
ete nere Ama-andria  
urre gortña artian

Guero Vidania guztian  
bat zan eroric eta zororic,  
Aita-jauna neriac aüra  
senartzat eman dit,  
baña ez nuque trucatuco  
obiagoagatic.  
Aita-jauna neriac  
niri eman cidan  
imiñan dotia,  
Ama-andriac ere isihillie  
bere partia.

Lenen gabian  
begiac viotzac luen mendian,  
baita berriz ere bigarrenian:  
Irugarrena igaro baño len  
ondo poztu cinan alós-torria  
eldu zalaco neregan semia.

Alós-torria! Bay, Alós-torria!  
Alós-torreco  
escallera lucia!  
Alós-torrian  
nenguanian  
goruetan  
bela beltzac cuá, cuá  
leyuetan.  
Andic jaiqui eta  
urre goruaz jó nuan.  
Baña andic laster  
berri gaiztuac jó ninduan.

Zaldunac esan cion! ishi, ishi!  
Ama dollorcumia!  
Ez da bada ori zure  
ezateria.

Ishi! Ishi! Zaldun odol  
charreco gaztia!  
Ala ere guchiago zan  
zure eguinpidia!  
Aizpa ederrac or daude  
ederric eta galantic,

atza ederrac eraztunez  
beteric:  
Ez daucatela mantubetan  
zuloric.  
Ala ere guchiago  
beguietan negarric.  
Ama-andriari ere bai  
poza daríyo;  
nere viotzari bacarric  
mindura jariyo!

Aita-jauna neria  
Gastelan zanian,  
Ishil ascoric jayo zan  
Alós-torrian semia.  
Eta ala ere ishilagoric  
Dago baquian  
Acitzen Zarauz aldian.  
Gure jatorriareren loituquerian  
Ay! au mindura belzá,  
Ay nere lotzá  
Alavac negarra ta,  
Aitak lur otza!

¿Ceñek loita zaitu zu,  
Alós-torria?  
Ay! nere Aita maite,  
Aita maitia!  
Illzia ondo eguin dezu,  
Aita-jaun maitia!



Hace siete años que no he entrado  
en esta hermosa casa sin ventanas,  
y (vengo) en el octavo por desdicha mía,  
por la muerte de mi padre  
Beltrán.

Cuando mi señora madre se  
abrió en dos para darme á luz,  
mil gallinas murieron en las  
cocinas.

Siete toros se corrieron  
en nuestra plazuela,  
mientras á mi me tenían  
sobre blanda pluma,  
y á mi señora madre  
entre cortinas doradas.

Más tarde...en todo Vidania solo  
se conocía un atolondrado y loco,  
y fué el que mi Señor padre eligió  
para esposo mio.  
Pero hoy no lo cambiaria  
por otro mejor.  
Mi señor padre al casarme  
me dió la dote  
en celemines,  
y tambien mi Señora madre  
reservadamente su parte.

En la primera noche  
sucumbieron al sueño el corazon y los ojos;  
tambien en la segunda:  
Pero antes que pasára la tercera...  
bien te alegraste ¡Oh! torre de Alós,  
porque germinó un hijo en el seno de tu hija.

¡Oh torre de Alós! ¡Oh torre de Alós!  
¡Cuan grande es la escalera  
de la torre de Alós!

Encontrándome un día hilando  
en la torre de Alós,  
llegó un cuervo negro graznando  
cuá, cuá en mis ventanas.

Me levanté y le dí  
con mi rueca de oro.  
Pero en vano, que al poco tiempo llegaron  
funestas nuevas  
á mis oidos.

El caballero le dijo; ¡Calle! ¡calle!  
Hija de ruin madre!  
son palabras esas  
que no deben pronunciar tus labios.

Calle! calle! el caballero  
de baja sangre!  
Aunque es bien cierto, que no es él  
aquí el más culpable.  
He aquí mis bellas hermanas,  
bien frescas y hermosas,

con los dedos blancos  
llenos de sortiñas:  
Sin agujeros en los mantos;  
y por fortuna con menos  
lágrimas en los ojos.

La señora madre tambien  
rebosa de contento.  
Solo mi pobre corazon  
destila pesar y amargura!

Cuando mi señor padre  
Se hallaba en Castilla,  
Con harto silencio nació  
Un hijo en la Torre de Alós.  
Y por fortuna, con harto misterio  
Se encuentra aún vivo

Hácia Zarauz,  
Para afrenta de nuestra raza!  
¡Ay! cuanta es mi amargura!  
¡Ah cuanta mi vergüenza!  
Solo quedan para la hija el llanto,  
Para el padre la fria tierra!  
¿Quién arrojó tal mancha sobre ti,  
¡Oh torre de Alós?  
¡Ay! mi querido padre,  
Querido padre mio!  
Bien has hecho en morirte  
Querido padre mio!

Oharra: Euskarazko bertso baten testuak eta gaztelaniazko bertsoak bitzez hitz transkribatu dira Juan Venancio Araquistain-en "Tradiciones Vasco-Cántabras" obratik. Jatorrizko bertsoaren lexikoa eta ortografia errespetatu dira: arkaikoak izan arren, garai hartan hitz egiten eta idazten zen bizkuntzaren lagin bitxiak dira.

Nota: Los textos de estos versos en euskera y su versión en castellano, son una transcripción literal de los editados en 1866 por Juan Venancio Araquistain, en su obra "Tradiciones Vasco-Cántabras". Se han respetado el léxico y la ortografía de la versión original pues, aunque arcaicos, son una curiosa muestra del lenguaje hablado y escrito en aquella época.